



**021/2019 EBAZPENA, irailaren 20koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako Administrazio Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Informazioaren Sistema eta Teknologietako Eskala lan-poltsa handitzeko deialditik datozen langileak integratzeari buruzkoa.**

---

Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiak (EHAA, 2006ko ekainaren 13a) EAEko Administrazio Orokorrean eta bere Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz aplikatu beharreko arauak zehazten ditu, eta 4. eta 22. artikuluetan ezartzen du Administrazio horren lan-poltsak zein kasutan eratu eta handitu behar diren.

Administrazio honek beharrezkotzat jo zuen lan-poltsa jakin batzuk handitzea, IVAPek egindako deialdi zehatzen bitartez, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiaren 22.1 a) artikulua arabera. Hala, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez, Goi Mailako Teknikarien Kidegoaren Informazioaren Sistema eta Teknologietako Eskalako lan-poltsa handiagotzeko hautaketa-prozesuaren deialdia egin zen.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko irailaren 4ko Ebazpenaren bidez Goi Mailako Teknikarien Kidegoaren Informazioaren Sistema eta Teknologietako Eskala lan-poltsako behin betiko osaera argitaratutakoan, eta handitzeko prozesua amaitu ondoren, langile horiek dagokien lan-poltsan integratuko dira, deialdian bertan jasota dauden baldintzen arabera. Beraz, langile horiek indarrean dagoen lan-poltsako azken langilearen ostean sartuko dira, hautaketa-prozesutik atera den hurrenkeran bertan, eta euren puntuazioa zero izanik.

Azkenik, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabaki horretan xedatuta dagoenaren arabera, Ebazpen hau eta lan-poltsa eguneratuaren zerrenda argitaratuko dira, Administrazioak bere informazioa hedatzeko erabili ohi dituen bitarteko telematikoetan. Hala, lan-poltsai buruzko informazio hori eskuragarri egongo da, interesdunek jakin dezaten.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 2017ko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 16. artikulua emandako eskumenaren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz 2006ko maiatzaren 30ean hartutako erabakiaren 4. artikulua arabera, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**1. artikulua.-** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko irailaren 4ko Ebazpenean zerrendatutako langileak integratzea gaînditu duten handitze-prozesuari dagokion lan-poltsan, honako irizpide hauen arabera:

a) Langile horiek indarrean dagoen lan-poltsako azken langilearen ostean sartuko dira, hautaketa-prozesutik atera den hurrenkeran, Ebazpenean jasota dagoenez, eta euren puntuazioa zero izanik.

b) Integratutako langileei gertutasun osoa onartuko zaie mota guztietako eskaintzetarako eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremu osorako. Hortaz, edozein iraupenetako eta Edozein Lurralde Historikotako eskaintzak jasoko dituzte. Bi gertutasun-mota horiek interesdunek aldatu ahalko dituzte, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren 6. eta 7. artikuluen arabera.

**2. artikulua.-** Handitzeko prozesuari dagokion lan-poltsaren zerrenda berria argitaratzea [www.euskadi.eus/bolsastrabajo](http://www.euskadi.eus/bolsastrabajo) helbidean. Zerrenda horrek ondorioak izango ditu argitaratzen den egunetik aurrera.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari hilabeteko epean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren web orriko [www.euskadi.eus/bolsastrabajo](http://www.euskadi.eus/bolsastrabajo) helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 20a.



**FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA**

**ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA**



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA  
Funtzio Publikoko Sailburuordetza  
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO  
Viceconsejería de Función Pública